

Naia del Castillo

Argazki bidezko eskultura



ESPASIO DOMESTIKOA - ETXEKO LANAK (2001)

Argazkia koloretan. 76 x 100 cm



Xabier Gantzarain
@gantzarain

Euskal Herriko artista gehienei gertatu ohi zaien bezala, mundu zabaleko museo eta galerietan bueltaka ibiliagatik, bertan ez da oso ezaguna Naia del Castillo Aira (Bilbo, 1975eko uztailaren 17a). 2002an Okzitaniako Tolosan egiten den Le Printemps de Septembre festibalaren katalogoko azalerako bere lana hautatu zuten, *Bulego orduak*, eta *Le Monde* egunkarian atera zen gero. "Harrapatuta" sailekoa da, *Espazio domestikoa - Etxeko lanak* hau bezala.

Sail honetako lanetan, konstante bat da bere jardunean, zeinuak erakusten ditu artistak, baina gizakiak haiekin duen harremanean jarriz arreta, pertso-

nak dira protagonista, pertsonak daude harrapatuta, zu eta ni gaude egunero-kotasunak harrapatuta, bere biolentzia krudelak, bere zentzurik ezak, bere inertzia motelak, bere zorientasun gezak.

Sail honetan etxeaz ari da galdezka artista batik bat, leku gozo bezain arrotz horretaz, babesten eta zanpatzen gaituen espazioaz. Artistaren hitzetan: "Funtzioak definitutako espazio pilaketa bat da funtsean espazio domestikoa. Jangela dago jateko, logela dago lotarako, sukaldea kozinatzeke... Espazio horien premisen arabera mugitzen gara etxean. Eta horrek sortzen dit galdera: zenbateraino gara espazio horren jabe,

eta zenbateraino da berak ezarritakoaren arabera jokatzera behartzen gaituen espazio hori gure jabe?".

Nork ematen dio forma nori? Jendeak ematen dio forma etxeari, ala alderantziz da? Gorputzak ematen dio forma jantziari, ala alderantziz da? Geuk ematen diogu forma geure bizitzari, ala alderantziz da?

Orain arte "emakumearenak" izan diren espazio eta lanak hartu zituen artistak sail honetan oinarri; lan honen izenburua espainolez dago jatorrian: *Espacio doméstico - Labores*. Izenburuak berehala zaramatza erreferentzia mundu jakin batera. ■